

5 editoreren artean atera dute aldizkari hau, zirkuitu ofiziale-tik kanpo, zentsurarik gabe. Almanaka bezala atera dute. 23 idaz-le sobietikok parte hartzen du. Amerikanu batek ere bai. METRO-POLI du izena (alegia, «hiriburua», «metro» eta izen bereko Mos-kuko hotel ezaguna).

Aldizkari honen sortzea, «matxinada» gisa kontsideratua izan da Moskun. Zetgatik? Idazle oso ezagunak direlako asko. Are gehiago: «Idazleen Elkarteko» partaide direlako asko. Idazle hauen oposizioa ez da, hala ere, haustura edo etena. Idazle hauek ez dira «disidentek», konformagaitzak dira.

Aldizkari honen bidez, zubi izan nahi dute idazleok. Literatura debekatuaren eta ofizialaren arteko zubi. Literatura ofiziala, hauentzat, inertzia astun baten menpe dago, monolitikoegi da, ez du aspaldi batetako alturarik. Mendebalean argitaratzen den literatura debekatuaren aurka egon ez daude, baina diotena hau da: literatur-lan hori ez dela literatur-irizpidez epaitzen baizik eta politikazki. Horren kontra daude.

Gai zuzenki politikorik ez dago aldizkarian. Aldizkari ofizialtan erabiltzen ez den gai asko, bai: Jainkoa, heriotza, erotismoa, sexua, mozkorra... Gauza kurioa: METROPOLIraiko zuzenean idatzi den artikulua guti dago. Artikuluok Redakzioz Redakzio ibiliak dira. ■ *Joanes Leckerika.*

Polizia Euskadin

Poliziako hiru besoak dira: CGP, Cuerpo General de Policía; PA, Policía Armada; GC, Guardia Civil. Bestelako polizia eta goardia motak alde bat uzten ditugu (sekreta, foral, municipal, etab.). Prentsan ikusi dugunez, 78. urtea bukatu dugunean, holako 8.200dik gora genituen Euskadin:

ARABA:	60 — CGP	
	350 — PA	
	527 — GC	937
BIZKAIA:	360 — CGP	
	1.469 — PA	
	1.382 — GC	3.211
GIPUZKOA:	170 — CGP	
	769 — PA	
	1.389 — GC	2.328
NAFARROA:	95 — CGP	
	420 — PA	
	1.228 — GC	1.743

Prentsa horrexek 79. urtearen hasieran jakinarazi digu, egun ho-

rietan 2.800 polizia inguru gehiago ekarri dutela lurralde honetara, eta Conesa gainera, 60 polizia espezialekin, terrorismoa behingoa aienatu eta bakea ekartzeko. Beraz, urte berriaren hasieran, 11.080 bakezaintzaile inguru dugula, ematen du, Euskal Herrian, Ipar Euskadin eta Sorian euskaldunon bakea begiratzen dabiltzanak ere alde bat utzita.

Lau probintzietako biztanleak hola banatzen dira:

ARABA:	238.000	
BIZKAIA:	1.150.000	
GIPUZKOA:	680.000	
NAFARROA:	480.000	2.550.000

Prensa horrexek berak, kontuak atera eta, Euskal Herrian, 2.800 kristautatik bat polizia dela, esan zigun. Batzuei askotxo iruditu omen zitzairen. 280tatik bat zela polizia, zuzendu zuen hurrengo egunean. Batzuei ikaragarrikeria iruditu omen zitzairen. Beldur gara, berriro zuzendu beharko dugula: 222 lagunetatik bat da polizia Euskadin.

Iaz bertan, urte berriko 2.800 polizia berriak kontatu gabe, horiek nola probintzika banatu dituzten ez bait dakigu, hola banatzen ziren jendeak eta poliziak lau probintzietan:

ARABA:	235 biztanleko polizia bat
BIZKAIA:	342 biztanleko polizia bat
GIPUZKOA:	279 biztanleko polizia bat
NAFARROA:	275 biztanleko polizia bat

Kontzentrazio urbano haundienak berak izaki, Bizkaiari tokatzen zaio gutiena; Arabari gehiena, Gasteiz beste kontzentrazio urbano inportante gabe.

Baina Bizkaiak (iaz beti ere), kilometro koadratuko polizia bat eta ia erdi zeukan (1,44). Gipuzkoak ere bat eta piko (1,16).

Eman dezagun etorri berriok parte berdinetan banatu direla lau probintzietan: bakoitzak 700 gehiago hartzen duela, Bizkaian gaur kilometro koadratuko 1,76 polizia dago, Gipuzkoan ere polizia eta erdi. Eta —bistan dago ezetz, baina, banakuntza hori horrelaxe egin izan balitz, Araban dabilen 145 kristautatik bat polizia izango litzateke gaur...

Konparaketak egiten ez naiz luzatuko. Muestra gisa, hona hemen bat, probintzia bakoitzak zenbat sendagile zuen eta zenbat polizia, iazko datuekin:

	SENDAGILE	POLIZIA
ARABA:	525	937
BIZKAIA:	2.400	3.211
GIPUZKOA:	1.300	2.328
NAFARROA:	1.150	1.743

Oro har, sendagile baino bi aldiz polizia gehiago du Euskadik. 2.800 berriekin, proportzioak ainbat okerrago geratzen dira, noski.

Eskolekin jarrai genezake, etab: kasi Hezkuntza eta Jakintza Delegazioak EGB mailan enplegatzen dituen irakasle guztiak adina ziren iaz Gipuzkoan poliziak. Agian aurten irakasleak baino gehiago dira, 2.800 horietakoekin.

Apaiz gehiegi dagoela Euskal Herrian? Moja baino ere polizia dexente gehiago dago Bizkaian. Bai. Apaiz eta fraile denak batera baino doble eta dexente polizia gehiago, dexente gehiago.

Puntu honetan egunkaria heldu da gure etxera eta kontuak atzazeari utzi egiten diot:

«Más policías hacia San Sebastián

SAN SEBASTIAN (EGIN). — Numerosos autobuses y vehículos policiales se encaminaban hacia San Sebastián a primeras horas de la noche. Por la carretera general de Tolosa a Donostia desfilaron un mínimo de treinta autobuses de la Policía Nacional, presumiblemente para reforzar, tanto en Donostia como en otras capitales vascas, a los once mil guardias y policías ya establecidos permanentemente en nuestro suelo» (31.01.79).

Ehun metrotik ehun metrora polizia bat ipinita, Euskal Herriko polizia Donostiatik Cadizeraino ailegatuko litzateke lerro-lerroan. ■ *Lazkano Mendizabal.*

Kaleko aldizkaritxo bat

ZUBIBARRI Deustuko Gau Eskolatik aldizkaritxo bat jaso du, azalean «Gaurko gizona izan behar da» dioena.

15,5 x 21 zm. luze zabalean, 98 orrialde, polikopiaz egina, ipuin eta kontakizunez hornitua... ez da beste munduko gauza, ez da hoherena, ez da bakarra. Baina bai interesgarria.

Ikuspegi askotatik da interesgarria honelako aldizkari baten saioa. Hasteko, euskara ikasten dabilen jende normalak egindako lana da. Ikus daitekeenez, gau eskola horrek ingurune eta giro egoki bat sortzea posible egin du. Hona fruitu bat. Honelako aldizkari baten eginkizun didaktikoa, oso aberatsa da, zalantzarik gabe. Zeren eta ibiltzen ibiliz ikasten bada, idazten ere idatziz ikasten da. Idazle berriak (hain beharrezko ditugunak) sortzeko plataforma onuragarri izan daitezke hauzo-, eskola-, talde-mailako aldizkari hauek. Holako aldizkariak ugalduko balira, idazleen erreleboa aseguratuta legoke. Eta zergatik ez dira, bada, ugalduko, azpiegitura eta tresna hain guti eskatzen dutenez? Deustuko publikapen